

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko martxoaren 9a. VIII. urtea. 2.189. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Azken egunean kaleak berriro jendez bete ziren. Inauterizaleak konpartsetan eta karrozetan atera ziren kalera, jaiari behar den bezala agur esateko asmoz. A. IMAZ-LURKIZU

Amaitu dira Tolosako Inauteriak

Sei egun eta sei gaueko iraupena izan duten jaiak amaitu berri dira; jada, iragan Ostegun Gizona baino gertuago gelditzen da hurrengo urtekoa

Azken egunean konpartsa eta karrozak berriro ere kalera irten dira; zezenek eta txarangek ere euren protagonismoa eduki dute Pattar zezenarekin **3-7**

Inauterietako Argazki lehiaketa

- **Saria:** Denak tabernan 4 pertsonentzako afaria
- **Argazkiak nora bidali:** argazkiak@tolosaldeko-hitza.info harpidedun kodea jarri behar da mezuan, harpidedun bakoitzak gehienez bi argazki bidali ditzake.
- **Noiz bidali:** Martxoaren 4tik matxoaren 11 bitartean.
- **Sariduna:** Martxoak 15eko alean argitaratuko dugu.

Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan www.tolosa.hitza.info webgunean!

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info
bertako egunkaria

902-82 02 01
(Astegetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info
eraman/bidali zure datuak:
Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

egin zaitetz harpidedun!

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• NA:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• PK:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa. Datu Pertsonalak Babestutakoak, berrak, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak, TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren fitxategi automatizatu baten bidezko denda, erpresak dituen eskaintzen berri emateko, zure esku dago ikusirik, zuzentzeko, ezarritako eta kontratu egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.- Araba etorbidea 5 behea, 20400 Tolosa, edo harpidedun@hitza.info



Eguneko irudia ◦

Emakumeen Nazioarteko Eguna



Asier Imaz

Oihana Lopetegi • Inauterizalea

Emakumea izaki, egun berezia izan zen Oihana Lopetegirentzat (Ibarra, 1979) atzokoa. Alde batek, Emakumearen Nazioarteko Eguna zuen buruan, eta bestetik, Inauteriak.

Bilgune Feministaren konpartsan zegoela, Ramos Azkarateren alaba gaiztoz jantzita, elkarrizketa bat baino gehiago eskaini behar izan zituen. Ondorengo bertsoa ere zabaldu zuten: *Mendetan izan gara/neskak zapalduak|lan eskasamak eta/oso irainduak|Beti ez gara izango|zuen gatibuak|bada garaia eta|altxatu buruak!!*

Zer moduz joan dira zure aurtengo Inauteriak?

Oso ondo. Egun desberdinetan atera gara; batzutan goizetik eta gaueko festan parte hartzeko aukera ere izan dugu, gustura.

Zein da gehien gustatzen zaizun eguna?

Normalean, Ostegun Gizena eta Zaldunita ditut gustukoak. Hala eta guztiz ere, ostegunean parranda botatzeko aukerarik ez

«Martxoaren 8ko aldarrikapena beste itsura batekin zabaldu dugu aurten»



Oihana Lopetegi elkarrizketa bat eskaintzen. A. IMAZ

zaigu aktiboki emakumeak zapaltzeko egiten zutela, Ramos Azkaratek bertso gehiago ere izan badituelako. Hortik abiatuta, Ramos Azkarateren alaba gaiztoz mozorrotu gara eta, emakumeak askatzera gatz. Aldarrikapena bertsoz egitea ere erabaki dugu, Naiara Arreseingoren laguntzarekin, eta kalean banatuko ditugu.

Zein da bertsoez gain, kalean zabalduko duzun aldarrikapena?

Bilgune Feministatik aurten landu dugun leloa, emakumeok beti gaudela krisian izan da. Jendarte osoaren eta langileen eskubideak hain zapalduak dauden krisi garai honetan, emakumeen eskubideak bereziki zapalduta daude, krisiak emakumeoi are eta gehiago eragiten digulako. Zergatik? Sistema kapitalistan gero eta gehiago geldirik egon egun honetan eta, karroza bat ateratzea pentsatu genuen.

pentsatu genuen betiko eskemetatik atera beharra geneukala, ezin genuela pankarta baten atzean geldirik egon egun honetan eta, karroza bat ateratzea pentsatu genuen.

Ramos Azkarateren bertso batek eman zizuen ideia, ezta?

Ez naiz gogoratzen ziur zein elkarrekin den baina urte askotan, azkenekoetan ez, Ramos Azkarateren bertso bat jartzen zuten pertsonaia honek Tolosan duen eskulturaren gainean. Juxtu, emakumeen aurkako bertso bat aukeratzen zuten. Guri iruditzen

dut izan azken urteetan. Aurten, aldiz, bai. Orain arte igandeetan egiten genuen gure ahalegina eta oso egun polita irteten zen. Tolo- sa inguruko jende ugari etortzen da bere karrozatxoarekin eta oso giro polita egoten da.

Aurten berriz, Asteartitar begirala egitea tokatu zaizue, egutegiak horrela erabaki baitu.

Martxoaren 8an urtero egiten ditugu ekimen desberdinak. Beti saiatzen gara gure aldarrikapena kalera eramaten, bertan egon dadin eta, aurten Inauterietako Asteartitan suertatu da. Segituan



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Pattar zezenak joko handia ematen die bai zezenaleei eta baita ikusleei ere. Batzutan, joko horrek lana ematen die DYAkoei. HITZA

Gaupasaren ondorengoak



Jendetza ateratzen da zezen-plazatik txarangekin. Batzuk gosaltzeko tartea hartzen dute. HITZA

Imanol Garcia Tolosa

Astelenita gaueko parrandaren ondoren zezen-plaza eta ingurua bihurtzen dira Inauterien bihotza. Txarangek gidatuta gaupasa egindako gazte ugari joan ziren beste behin, ondoan goiz esnatutako haur eta gurasoak zituztela. Pattar zezenen ateratzen diren adardunek zenbat harrapatzen dituzten ikustera eta uneoro entzuten diren txaranga doinuekin Astearrita egunari ongietorria ematera.

Aurtengoan ere hainbat zezenzale harrapatu zituzten lau hankakoei, baina DYAtik azaldu zuten, bi izan ziren Asuncion ospitalera eraman zituztenak. Horietako bat, sorbaldako luxazioa izan zezakeelakoan, eta bestea bizkarraren alde batean izan zuten kolpeagatik. «Ez dirudi larritasunik izango dutenik», zioten DYAtik eta gaineratu: «Beste

urtean antzekoa izan da orain artekoa».

Ia beteta zegoen zezen-plaza azkar batean hustu zen txarangekin batera. Horren ondoren, batzuk parranda luzatu nahian eta besteak eguneko hasteko asmoz, jende ugari elkartu zen txarangen inguruan eta kalejiran abiatu ziren Alde Zahar aldera.

Bitxia da herria esnatzen ari denean, ehunka lagun saltoka ikustea. Hori bai, batzuk esertzea erabaki zuten. Eseri eta gosaltzea. Ordurako martxan zeuden zezen-plazaren inguruan dauden hainbat gozotegi, kafetegi eta okindegi. Atzoko eguraldiarekin, gainera, terrazan gosaltzeko giro ederra egiten zuen. Halere, kafesne beroa hartu ordez, izan ziren inguruko tabernetan azken tragoa eskatu zutenak. Azkena ohera joan ez zirenentzat. Aurrena, Inauterien azken egunari hasiera eman ziotenentzat.

Iragarki laburrak



ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Larrea auzoan etxebizitza berria alokatzen da. Sukaldea, jangela, egongela,

gela bat, bainugela bat eta trasteleku. 600 euro hilero. Gara-je itxiarekin nahi izanez gero 650 euro. 669 82 70 96.



Hurrengo urtera arte



Itzea Urkitzu

Ez zen aurreko egunetan bezainbeste jende hurbildu atzo Tolosara, baina Inauterietan ezartutako hain berezia den Asteartik aurreratik ere agura eman zien aurtengo Inauterietan.

Berriak, igandeko mozorro bera jantzi zuten berriro ere, eta umore saso nahiz dantzek eguraldia lagun izan zuten onken egunetan.

Urteko hiru egunak erorenak askotariko ideia, kolore eta iriziz jantzi dira aurtengo, eta Tolosako Inauterietan hain berea duten sinpletasunak kritika eta aldarrikapenari utzi diete tartea. Homen adibide dira emakumearen eguna zela eta Tolosako Bilgune Feministak atera zuten kompartsa, edo baita San Prantzisko jusealekuko iturri gainean hiletan jardun zen gotzaina ere.

Zeren-plazatik irteneko kalejira jandetsuak eta sarlinaren hitak eman zieten amara festei, eta tolosarrek jada burua hurrengo urteko Inauterietan dute; gutxiago geratzen zaie aste beteko festarako.

17. Korrikako jantziak
Euskalherrikoplaza.com-en
 aurkituko dituzu:

www.euskalherriko
plaza.com

Hartu aisia
BERRIAREKIN

Egin harpidedun eta jaso 2 laguntzako
ERLAXATZEKO BONUA OPARI

EZAGARRIAK:

- Talasoterapia zirkuitua
- Erlokatzeko masajea
- Igarde arratsaldeak ostiral eguerdian esabildutele

Haremanetarako:
 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

AUKERA EZAZUL, HAZI EUSKARATU **berria**

TX

SAN SEBASTIÁN GIPUZKOA BASKET S.A.D.

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pareta du**

LAGUN ARO GBC
 Real Madrid
 saskibaloitako partida

Martxoak 10 • Osteguna
 20:30ean
 Donostiako Iñurrieta

sarrerak eskuratzeko deitu: **943-65 56 95** telefono zenbakira



↓ Inkesta: 1. Zer moduz Inauteriak? 2. Egunik onena? 3. Zerbait aldatuko zenuke?



Itziar Saenz de Ojer

1. Oso ondo. Asko gustatzen zaizkit Inauteriak.
2. Ez naiz tolosarra baina egun guztiak gustatzen zaizkit. Baina gehien gustatzen zaizkidan egunak mozorrotzekoak direnak dira.
3. Ez. Beno, gustatuko litzaidake ateratzen den jende guztia mozorrotzea baina hori azkenean norberaren esku dago.



Mirari Izagirre

1. Ederki ari naiz pasatzen. Baina falta direnez gogoratzean, triste jartzen naiz.
2. Igandetik asteartera. Ez naiz karrozetan edo konpartsetan ateratzekoak. Lagunekin ateratzen naiz, bakoitza bere kasara mozorrotuta.
3. Nire ustez Inauteriak bakoitzak barrutik bizitzen ditu. Agian zezen plazan jarri duten hesia gehiegizkoa da.



Anabel Garikano

1. Primeran. Egunero aterara kalaera.
2. Igandean izugarri ondo pasa genuen eta astelehenean ere bai, izugarrizko ezkontza egin genuen.
3. Pena eta mina ematen dit kanpotik etorritako jendeak astelehenean egiten duen boteloia. Inauteriak ez dira edateko bakarrik, eta tolosarrok hori badakigu.



Rosa Aurkia

1. Oso ondo, jai giroan. Haur txikiarekin ezin da eta igandetik hasita aterara naiz hiru egunetan. 11:00ak aldera kalera aterara eta 08:00ak alderako etxera. Eguneko giroa aprobetsatzen ibili gara.
2. Igandean hobeto astelehenean baino, egun lasaia gozatu izan zen eta.
3. Ez, dagoen giroarekin nahikoa dela uste dut.



Miguel Angel Jubin

1. Oso ondo. Izugarria, eta eguraldi honekin gainera, ederra. Ostiralean ez nintzen aterara baina beste egun guztietan bai.
2. Igandea agian. Izugarrizko gogoarekin ateratzen zara goizetik eta jende pila bat zegoen eta oso gustura ibili ginen.
3. Ez, ez nuke aldatuko, giroa izugarrikoa da.



Enara Zumeta

1. Ondo. Egunero aterara naiz kalaera. Ostegunean txilabarekin eta beste egunetan mozorrotuta, gaur ardiak eta astelehenean, eskautekin aterara nintzen.
2. Ostegun Gizen Eguna gustatzen zait gehiena, Inauteriak egun horretan hasten direlako.
3. Ez, dena ondo dago.



Mertxe Pagola

1. Oso ondo, aurten oso gustura. Egunero gabiltza kalean.
2. Guretzako igandea eta asteartea izaten dira egunik onenak. Baina egunero gogoarekin eta animatuta ateratzen gara.
3. Ez, ez nuke aldatuko. Aurten uste dut dena oso ongi antolatuta dagoela.



Izaskun Larrañaga

1. Primeran. Ostegunean bazkaltzera joan ginen eta harrez geroztik egunero gabiltza kalean. 82 urte ditut baina gustura, parrandan eta dantzan.
2. Igandea eta astelehena egun oso politak dira baina azken eguna ere asko gustatzen zait.
3. Ez.



Jon Roteta

1. Oso ondo, ostirala izan ezik, egunero izan naiz. Ahalik eta gehien aprobetsatu ditut.
2. Astelehena egun txarra ez da baina igandearekin geratzen naiz. Urtero goizetik ondo antolatzen dut eguna eta asko gustatzen zait. Igandea da onena.
3. Ez, nik uste dut ondo daudela Inauteriak.



Patxi Gonzalez

1. Ondo. Igandean eta asteartean haurrekin aterara nintzen eta astelehenean gauean parranda.
2. Astelehen gaueko parranda. Eta haurrekin ateratzeko igandean baino asteartean hobeto.
3. Horrela jarraitzea eta mantentzea festa. Jendea animatzea.



Lierni Larreta

1. Oso ondo. Eguraldiak ezin zuen hobeagoa izan eta egunez eta gauez jende asko ibili da baina eramangarria izan da.
2. Osteguna, igandea koadrilakoekin ateratzeko eta bestela astearte gaua gustatzen zaizkit.
3. Bai. Zezenetarako sarrerarekin egin dutena. Polizia ekarri eta izugarrizkoa montatzea bertan ez zait batere gustatu.



Joxean Joubert

1. Oso oso ondo. Ostegunetik hasita egunero aterara naiz. Eta konpart sarekin bi egunetan.
2. Denak, baina igandea akaso. Jende asko eta eguraldi ona. Lehen eguna da mozorrotzeko eta indartsu harrapatzen zaitu. Mozorrotzea asko gustatzen zait.
3. Ez, ezin dira moldatu. Inauteriak nahiko anarkikoak dira, batzutan nahaspila handia dago baina kontrolatzea ere oso zaila da.



Faustino Gorostidi

1. Espezial. Hobeto ezin da. Ostegunean hasi eta egunero aterara naiz.
2. Denak berdintsu dira niretzat. Baina bat aukeratzekotan agian astelehena izan zen, oso ondo pasa genuen.
3. Karroza asko ateratzen gara eta oso gutxi egiten dugu aurrera. Baina ez dakit arazoa oso erreza den konpontzea. Elkarrekin moldatu beharra daukagu.



Juan Ignazio Calvo

1. Primeran.
2. Egun guztiak gustatzen zaizkit baina nola konpart sarekin igandean eta asteartean ateratzen garen ez bi egun horiek aukeratzeko ditut.
3. Aldatu ez dakit baina eskatuko nuke udaletxe aldetik konpartsa eta karrozetat leku gehiago, urteak daramazkigu arazo honekin. Eta bestela, konpartsa eta karrozak ateratzen direnean organizazio pixkat gehiago.



Jon Azaldegi

1. Oso oso ondo. Ostirala etxean txintxo-txintxo eta beste egunetan ordu txikietan oherra sartu eta goizean 11:00ak aldera esnatu eta berriz kalaera.
2. Igandea. Oso ondo egon zen eta konpart sarekin oso ondo pasa nuen. Trianguloa beteta ikustea asko gustatzen zait.
3. Zezen plazako segurtasun kontua eta horrelako hesia jartzearena lotsagarria irudituz zait. Jendeak txarangarekin ere ezin zuen salto egin.



Banaka, binaka edo familian, denak balio du Inauterietan. Mozorro ikusgarriak aurkitu ditugu Tolosako kaleetan aurtengoan ere, baina politena, barnean daramana izan ohi da. Hori esan ohi da.

Mozorroak sortzen duen... zera





**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

	<p>HILETAREN BALIOA Txina Inperiala</p>	<p>Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakartzak bere neuriko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horietan lider garenez, aukera ekonomiko gutxieta egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.</p>		<p>FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK</p>
		<p>Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagóa izan dadin.</p>		<p>902 402 900</p>
			<p>www.funerariavascongada.com</p>	



GOIZA	OSKARBI
ARRATSALDEA	OSKARBI
BEROENA	16°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

MENDI IRTEERA

■ **Tolosa.** Oargi mendi elkarteak datorren igandean, hilak 10, Gorbeia txangoa antolatu du. Izena emateko 943 67 56 12 zenbakira deitu behar da, gaur eta bihar, 19:00etatik 21:00etara. Emaillez ere apunta daiteke, info@oargi.org helbidera idatzita. Igandean, 08:00etan irten-go dira Tolosatik. Bi ordu t'erdiko igoeraren ondoren, Mairulegorreta kobazulora joango dira, ondorioz, linterna bat eraman behar da. Han bertan bazkalduko dute eta 16:00etan Murua herrira iritsiko dira. Mendi talde-tik herritarrak irteeran parte hartza gonbidatu dituzte.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36.112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Gora eta behera



BATZUK MOZORRO GABE

↓ Ez dago gaizki karrozez eta konpartsez gozatzea, baina gutxienez mozororen bat soinean jarrita. Ziur denok dugu-

la etxean pelukaren bat, kapela bereziren bat... Aurten jantzi ez direnek, hurrengo urtean izango dute aukera. E.M.

BESTEAK PARRANDAZALE

↑ Tolosako Inauteriek duten ezaugarri nagusienetako bat jende andana mozorrotzen dela da eta, horren ondorioz, parte-hartzea handia izaten da. Parrandarako edozein

une da egokia, baita mozorroei bizia emateko ere: zezen-plazatik ateratzean, txar-rangen atzetik saltoka, Tringuloa plazako izkina batean, taberna barruan...i.e.



Agurrak



Urte askoan!

Zorionak Irune eta amatxo! Ondo pasa aitaixo eta Ekainen partetik.

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



www.tolosaldea.hitza.info

herrietako informazioa inoiz baino gertuago
ezagutu gure webgune berriak

www.ibarraldea.hitza.info • www.alegialdea.hitza.info • www.anoetaldea.hitza.info • www.villabona-aiztondo.hitza.info
www.leitzaaldea.hitza.info • www.tolosa.hitza.info